

ahoa bete hots laburpenak

AZAROAK 2, ASTEAZKENA

Ahozkoa eta idatzia, bi kultura. Zertan elkarren oztopo, zertan elkarren aberasbide

Luis Mari Larringan (EHU) eta Arantza Ozaeta (MU-HUHEZI)

Hainbat hausnarketa egin dira antzinetatik gaur egun arte ahozko hizkuntzaren eta idatziaren inguruan: moldeak, funtzioak eta zereginak eta abar.

Hitzaldiak hiru zati izango ditu: lehenik, komunikazio idatziaren eta ahozko komunikazioaren perspektiba antropologikoa zirriborratuko dugu Goody (1985) eta Havelock (1996) autoreen ildotik.

Bigarren atalean, ahozkoaren eta idatziaren elkar ukitze eremuei erreparatuko zaie, bakoitzari berea aitortuz. Etenak eta jarraipenak.

Hirugarrenik, ahozkoak idatzitik zuzenean edan dueneko adibideez, eta idatzizko hizkuntzak ahozko hizkuntza aldatzeko duen indar eraldatzaileaz jardungo gara. Idatzia ez baita hizkuntza grafiara ekartze hutsa: gizartean, historian, politikan eta psikologian ditu ondorioak. Idatziak, era berean, ahozko esapideetarako harrobi gaitasuna du, eta horietara hurbilduko gara.

Esatearen ederra

Julia Marin (Antzerkizalea eta Itzulidatz)

Hamasei urte luze daramatzat Antzerkigintzan itzultzaile, testu egokitzaile eta zuzendari laguntzaile moduan. Egin behar horiek talaia ederra eskaini didate, bai esatezko testuen inguruan, baita testua esateari/interpretatzeari berari buruz ere gogoeta egin, ikerlanean jardun eta ahoskera metodo bat diseinatzeko.

Bestetik, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerlean (TAE) eta Itzulidatzek antolatzen dituen ikastaroen bitartez aukera izan dut metodo hori esperimentatzeko irakaskuntzako eragileekin (euskaltegi eta eskoletako irakasleekin) zein hedabideetako profesionalekin (aktore, hizlari, kazetari, esatari, aurkezle, bikoiztaile eta abarrekin).

Hitzaldi hau baliatu nahi nuke eskarmentu horren berri eman eta nire kezkek plazaratzeko:

-Euskararen irakaskuntza testu idatzian oinarritzen badugu, nola nahi dugu ikasleak eroso sentitzea hizketan?

-Pauso sendoak eman ditugu, urte gutxiren buruan, euskara idatziaren batasunerantz. Noiz heldu behar diogu ahoskeraren batasunari?

-Euskaltzaindiak eman ditu aditzera oinarri-oinarrizko fonetika lege batzuk. Baina aztertu eta landu gabe ditugu prosodiari dagozkion beste alderdi asko: azentua, doinua, doinu aldaketak... Nori dagokio eginkizun hori?

- Gurean ugari dira hitzaz baliatzen diren profesionalak. Irizpide argirik ezean, nor bere aldetik dabil, sen eta intuizio hutsean oinarriturik gehienbat.
- Zer egin gaztelerarekiko morrontzatik aldentzeko?
- Zertan datza ahozko jardunaren naturaltasuna?
- Hizketa natural eta biziak euskalkian behar du derrigor? Batuan ezin da?

Pantaila euskarazko hitzez mintzo

Asier Larrinaga (EITBko euskara arduraduna)

Euskal Irrati Telebista herri-erakundea 1982an sortu zen, Eusko Legebiltzarraren 1982ko maiatzaren 20ko 5/82 legearen bitartez, eta Euskal Telebista (ETB) urte bereko azken egunean aireratu zen lehen aldiz. Ez da gehiegikeria esatea urrats hura ezerezean egin zela: egoera legala badaezpadakoa zen; ez zen esku bat baino gehiago behar ikus-entzunezko hedabideetan esperientzia zuten euskaldun profesionalak zenbatzeko; eta, zailtasun oroz gain, euskarak eman barik zeukan ikus-entzunezko mundurako pausoa.

Pauso hori emateko, hiru arazori egin behar izan zitzaizkien aurre. 1) Hizkuntza-eredua hautatu behar zen, alegia, euskara batua edo zer beste euskara erabiliko zen erabaki beharra zegoen. 2) Batua hautatzekotan, paperean idazteko pentsatuta zegoen eredu estandar horri zer ahoskera eta zer doinu eman erabaki beharra zegoen. 3) Eta, jakina, batasunaren bidean abiatu berri zen euskara hura programa-mota bakoitzarentzat egokitu, garatu eta lantzeko premia zegoen.

Laster beteko dira hogeita hamar urte ETB abiatu zenetik, eta arazo horiek bideratuta daude; asmatu dugu ikus-entzunezko euskara asmatzen. Nekez esan dezakegu, ordea, arazoak gaingaituta daudela, komunikazioa aldatuz doan eran hizkuntzari zailtasun berriak azaltzen baitzaizkio egunez egun.

AZAROAK 3, OSTEGUNA

Ahoz idatzi, eskuz hitz egin

Joxerra Garzia (EHUko irakaslea)

Aurrena, aurkeztuko dudan hausnarketarako oinarri teorikoa azalduko dut, gaur egungo ikerlari puntakoenen haritik. Hala, ahozkotasanak eta idatzizkotasanak (nolabait esateko) berez dituzten ezaugarriak eta arauak aztertuko ditugu, eta baita elkarren artean duten harreman uka ezina ere.

Hortik aurrera, oinarri orokor horiek bertsotan duten eragina aztertzeari ekingo diogu, adibide ugariaren laguntzaz. Besteak beste, honako alderdiok hartuko ditugu aintzat:

Bat-bateko bertsotan zentratuko gara nagusiki, eta besteak beste honako alderdi hauei emango diegu arreta:

- Edukia: zer esan liteke eta zer ez? Literatura bertsotan?
- Sintaxia-eta: doinuaren eta neurriaren eragina
- Errima: begia ala belarria juez?
- Baliabide poetiko-erretorikoak: zeintzuk errazten eta zeintzuk zailtzen ditu bertsoak?
- Ahotsa: zer erantsi diezaioke testuari? Baliatzen dute bertsolariek?
- Gorputz hizkeraren auzia

Batez ere bat-bateko bertsogintza landuko badugu ere, bat-batekoak ez diren bertsoak ere (jarriak, okasiozkoak...) kontsideratuko ditugu, astirik baldin badago behintzat, eta hor ere hainbat galdera erantzuten saiatuko:

- Zer neurritan izan liteke ahozkoa bertso idatzi bat?
- Zertan datza idatzitako bertsoen ahozkotasuna?
- Non dago bertso idatzien “bertsotasun”aren muga?

Ikusten denez, erantzun baino galdera gehiago eramango ditut hitzaldira. Izan ere, gurean oso gutxi landu den kontua da honako hau (ere), eta jorratu gabeko alor batean sartzeraz goazela begitandu zait hitzaldia prestatzen ari nintzen bitartean.

Horrek, bistan da, bere alde txarrak ditu (ekarpen handi edo behin betikorik ezin espero...), baina baita bere alde onak ere, aldeztu aurretik erantzuna ezagutzen ez zaien galderen inguruan eztabaida aberasgarria sor daiteke eta.

Herri kantuen interpretazioa. Ahozko tradizioaren atzetik

Itsaso Arrieta (Labayru)

ZER aurkituko du entzuleak?

Herri kantu bat oinarri edo adibide hartuta, ahozko tradizioan agertzen den sinbologiaz eta barneko mezuez argibideak.

Kantuen arteko lotura eta antzekotasunak.

Herri kantuetan agertzen diren gai eta zeharkako mezuak.

Kantuez gozatzeko aukera. Gozatu kantatzean zein entzutean.

AZAROAK 4, OSTIRALA

Ahozkoaren eta idatziaren arteko interfazeak mintza jardun jakinen eraberritzean: adibide bat

Leire Diaz de Gereñu (EHU)

Ahozkoaren eta idatziaren arteko interfazeak, eraginak edo eta harremanak askotarikoak direla erakusten diguten lanak gero eta ugariagoak izan dira azken hamarkadetan. Lanok, adierazpen modu biak elkarrengandik aldentzen dituzten berezitasunetatik harago, ahozkoa eta idatzia bata bestearen osagarri ikustera garamatzate; ez bata bestearen aurka edo bata bestearen gaineratik.

Kontalaritza garaikidearen praktika sozio kultural berriak diren kontu saioen bitartez, erosiak zegoen jendaurreko mintza jardunaren eraberritzea egin da, azken hogeita hamar hamarkadetan bereziki. Praktika horietan sortutako testuen azterketa enpirikoa oso berankorra izaten ari den arren, ahozkoaren eta idatzizko gauzatze modu bien arteko harremana eta joan etorria maila askotakoa dela ikusten ari gara: gaien aldetikoa, sorkuntza prozesuaren aldetikoa, diskurtsiboa, e.a.

Ahozkoaren eta idatziaren interfazeen erakusgarri, kontalari garaikideek egin duten ber-oralizazio lan handia dago. Hori da, izan ere, kontalaritza modu berrien ezaugarri nagusietakoa: mendeetan idatziz jaso izan diren ahozko kontalaritzatik bildutako testuak berriz ere ahozko adierazpen modura ekartzeko lana egitea; kontalaritza garaikidean beste oralizazio eta sorkuntza moduak daudela ahaztu gabe.

Lan honetan, hain zuzen ere, euskarazko kontalaritza garaikideak erakusten dituen ahozkoaren eta idatzizkoaren arteko interfazeak identifikatzeko eta ezaugarritzeko ahalegina egingo dugu.

Ikasteko hitz egin, hitz egiten ikasi

Itziar Elorza (Ikastolen Elkarte)

Ikastolon curriculumaren ibilbidean, ahozkotasuna gero eta garrantzia handiagoa hartzen joan da azken urteotan. Gaur egun, kompetentzien hezkuntzaren eredu berrian, ahozko komunikazioa oinarritzeko kompetentzia gisa hartzen dugu, hezkuntza prozesu guztietan garatu beharrekoa eta hezkuntza komunitate osoaren ardura dena.

Ahozko komunikazio-kompetentzia giltzarria da ikaslearentzat, bi funtzio nagusi biltzen baititu, besteak beste: Batetik, hizkuntza beraren garapenean paper garrantzitsua du. Bestetik, pentsamenduaren eta ikaskuntzaren bilakaerarako funtsezkoa da. Ezagutzen eraikuntza pertsonen arteko elkarrekintzan oinarritzen da. Hau da, norberaren ideiak berbalizatzea eta besteen ideiekin erkatzea ezinbestekoak dira edozein arloren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.

Saio honetan, ikaskuntza-prozesu orotan ahozkoak duen garrantzia agerian utzi eta ikasgelako komunikazio-inguruaren kudeaketan ikasleari hitza emateko bideak aztertuko ditugu, hainbat adibideren laguntzaz.